

CONFEBASK-EUSKO JAURLARITZA

Akordioaren bila

2020/04/03

Datozen hiletan askatasun publikoak murriztuta izango dira, eta murrizketak arindu edo areagotuko direlarik COVID-19ak eragindako infekzioen bilakaeraren harira, eta pandemiari aurre egiteko txerto edo sendagai eragingarri bat lortzen den ala ez, ELAren iritziz ezinbestekoa da zehaztea zein baldintzatan garatu behar den lan jarduera epealdi horretan, beti ere bermatuz langileen osasuna eta, batez ere, osasun arloko eta sektore soziosanitarioko langileena. ELAren proposamenak hiru abiapuntu ditu:

- Koherentzia beharrezkoa da oinarrizko askatasunen murrizketei dagokienez, gizarte guztiari ezartzen zaizkionen eta lantokietako artean. Bereziki osasun arlotik ezartzen diren betebeharrak hartu behar dira aintzat. Beti ere lehenetsi behar da COVID-19aren kutsatze kasuak geldiaraztea, eremu honetako arrakastak posible egingo baitu, gerora, jarduera normalizatu berreskuratzea ahal den eperik laburrenean. Mundu mailako lehiakortasun elementurik nagusia da langileen osasuna babestea eta ziurtatzea zaintza zein osasun sistemak biztanleriaren beharriari aurre egiten diezaiokeela.
- Lehenik, sindikatuen eta enpresarioen ordezkarien artean hitzartu beharra dago nola egin daitezkeen bateragarri lan arriskuen prebentzioa -funtsezko kontua- eta jardueraren jarraipena. Osasun protokolo eta gomendioak egokitu behar zaizkie enpresa bakoitzaren ezaugarriari eta finkatu zer nolako lan kargak egingo duten posible protokolo horiek betetzea.
- Finean, lan agintaritza bizkor eta eragingarri bat behar da, zeinak bermatuko duen lantokietan osasun gomendioak betetzen direla, gutxienik kalean bezain zorrotz. Sindikatuok Lan Ikuskaritzara edo Osalanera jo izan dugunean arauhauste nabarmen kasuetan, erantzuna motela izan da, edo ez da erantzunik izan. ELAren aburuz, ez Ikuskaritzak, ez Osalanek, bietako batek ere ez dauka behar adina jende pairatzen ari garen moduko pandemia bati aurre egiteko. Langileek ziurtasuna behar dute enpresetan arauak betetzen ez direnean benetako esku hartzea izango dela; ziurtasun horrek erraztu egingo du lan jarduera berreskuratzea, baita enpresetan akordioak iristea ere.

ELAk enpresei proposatzen die jardunbide-protokolo bat zeinak Eusko Jaurlaritzaren inplikazio zuzena eskatzen duen aplikagarria izan dadin. Eusko Jaurlaritzak benetako interesa badu jarduera ekonomikoaren zati ahalik handienari eusteko, langileen osasuna

babestuz, ELAren lan egingo du proposamen hau gauzatze aldera. ELAk Jaurlaritzaren sostengua bi puntu nagusitan eskatzen du:

- Prebentzio zerbitzuen kontrol zuzena. Jakin izan dugu hainbat prebentzio zerbitzutan aldi baterako enplegua erregulatzeko espedienteak (ERTE) abiatu direla, noiz eta lantokien zerbitzura egon beharko luketen une honetan. Ezinbestekoa da agintari publikoek haien jarduera kontrolpean izatea eta estrategia prebentibo baten zerbitzura jartzea, beharrezko denean barne antolakuntzan eragiteko ahalmena barne.
- Ohiz kanpoko giza baliabideak lantokien kontrolerako. ELAren ustez eginkizun honetarako berehala 100 lagun lanean hasi beharko lirateke. Gogoratu beharra dago hori dela Europar Batasuneko mailara iristeko beharrezkoa litzatekeen ikuskari kopurua.

Eusko Jaurlaritza proposamen honekin bat etorriko balitz, ELAk gainerako sindikatuekin eta Confedebarekin ondorengo jardunbide-protokoloa jarri nahiko luke martxan, lantokiak berriki aurretik edo lan arriskuen prebentzioa berraztertzeko, jarduera eten ez duten enpresetan:

BERRIREKITZE HIPOTESIA:

1. Enpresak langileen ordezkariari jakinaraziko die, gutxienez 72 ordu lehenago, lantoki bat berriz irekitzeko asmoa duela.
2. Ordezkaritza sindikalak edota enpresaren zuzendaritzak bilera bat dei dezakete, eta bilera horretara joan beharra daukate, lantokia ireki baino lehenago segurtasun baldintzak adosteko. Bileran prebentzio zerbitzuek parte hartuko dute, eta zuzenean jakinaraziko diete zuzendaritzari eta ordezkari sindikalei zeintzuk diren bere gomendioak. Eusko Jaurlaritzak prebentzio zerbitzuak enpresen eta sindikatuen zerbitzura jarri behar ditu eginkizun honetarako.
3. Ordezkaritza sindikalik ez dagoen enpresetan ohiko ERTEen prozeduran jasotako moduan osatu beharko da langileen ordezkaritza.
4. Akordiorik ez badago eta enpresak irekitzeko asmoari eutsiz gero, alderdi batek edo besteak Osalari eskatu ahal izango dio 24 orduko epean txosten bat egiteko; Osalariak konpromisoa hartzen du alderdi bien informazioa jaso, alde guztiekin informazio guztia partekatu eta negoziazioa bideratuko duela akordio bat iriste aldera.
5. Akordiorik gabe jarraituz gero edota enpresak jarduerari berriz ekin badiu, aipatutako prozesua egin gabe, agintaritza publikoa 24 orduko epean bertaratuko

da egoera ebaluatzeko. Arauak modu larrian hausten badira, langileen osasuna edota hauekin bizi direnen osasuna arriskuan jarritz, jarduera geldiarazi egingo da. Hobetu beharrekorik bada (agintaritza publikoaren ebazpenez), hau gehienez 5 lan eguneko epean egingo da, atzemandako arazoak komunikatu diren egunetik hasita. Lan agintaritza lantokira berriz joango da behin 5 eguneko epea igarota, egiaztatzeko arazoak konpondu direla.

BERREBALUAKETA HIPOTESIA: Bi alderdietako edozeinek ekin diezaioke bigarren puntutik aurrera deskribatutako prozedurari.

Bilbo, 2020ko apirilaren 3a